

**ELAk EUSKO JAURLARITZARI EGINDAKO
PROPOSAMENAK**

2009ko EKAINAREN 3a

SARRERA

ELAk hainbat proposamen egin izan dizkio Eusko Jaurlaritzari, bere ekintzaren inguruan. Hala eta guztiz ere, aurreko gobernuek garatutako politikak PSE-EErekin konpartitu eta erabaki dira Eusko Legebiltzarrean, eta behin ere ez dituzte gure planteamenduak aintzat hartu, ez neurri zehatzei dagokienez (aurrekontu-politika, gizarte-eskubideak, gizarte-gastua, enplegua...), ez eta parte-hartzean oinarrituriko demokrazian sakontzeari buruz ere (2006an, EAJk, PSE-EEK, PPk, EAK eta EBk ezezkua eman zioten, Eusko Legebiltzarreko Mahaian, gizarte-eskubideei buruzko Legegintzako Ekimen Herritar bat gauzatzeari).

ELAk Gobernua aplikatzen ari den politiken errotiko aldaketa erreklamatzeko du, aberastasunaren banaketan jazotzen ari den bilakaera alderantzizatu, eta pertsonen eskubideak, langileenak, enpresen eta kapitalaren interesen gainetik ipintzeko. Hau da, EAEko instituzioek ezarritako politika neoliberalak muintetik aldatu behar dira. Horretarako, borondate politikoa besterik ez da behar.

Zalantza barik, ugazaberia ez da bat etorriko behar dugun politika-aldaketarekin. Elkarriketa soziala irtenbide gisa aipatzea ez da egokia. Aukera horren bidez, ugazaberiarik beto-eskubidea ematea lortu nahi da, era horretan, akordiorik eza erantzukizun politikoak saihesteko aitzakia gisa erabiltzeko asmoz. Sindikatuok, ordea, ez dugu beto-eskubiderik errenta handiei eta kapitalari zergak murriztu ez dakizkien, gizarte-gastuan Europako azkenak izaten jarraitu ez dezagun, edo EAEn enplegu eta prestakuntza arloetan dagokion erabakimena urratzen duen transferentziarik onartu ez dadin. Gizarte-elkarriketa, horrela planteatua, hesi gaindiezina da gure eskarientzat.

Halaber, ez da bidezkoa krisiaren ondorioak langileok ordaintzea nahi izatea. Horregatik, inoiz baino premiazkoagoa da dokumentu honetan jasotako neurriak ezartzea. Horrela egitera, lehenengo eta behin, biztanle gehienaren bizikaltatea eta gizarte-eskubideak hobetu ez ezik, enplegua nabarmenki areagotuko litzateke. Bigarrenik, eredu sozialagoa eta jasangarriagoa garatzeko oinarriak ezarriko lirateke. Hirugarrenik, lan-eskubideekiko errespetu handiagoa eta lan-baldintza hobeak lortuko lirateke. Eta azkenik, aurrerapausoak emango lirateke gizarteari buruzko ikusmolde demokratikoaren eraketan.

ZERGA ETA GIZARTE ARLOETAKO POLITIKAK

ZERGA ARLOA

Zergak gizarte jakin batean dagoen elkartasun-mailaren adierazle zehatza dira, bai eta aberastasuna banatzeko funtsezko tresna ere. EAEn erabili den zerga-politikak, ordea, Europar Batasuneko kideen zerrendako azkenera eraman gaitu

zerga-presioari dagokionez, eta itzelezko jauzia dago langileok jasaten dugun presioaren eta beste kolektiboek jasaten dutenaren artean. Horregatik, ELAk haxe eskatzen du:

- 27-EBko batez besteko presio fiskalera heltzea. Eskumen hori Foru Aldundiena bada ere, Eusko Jaurlaritzak parte hartzen du horrelako gaiak ebazten dituen Zerga Koordinazioko Organoan. Jaurlaritzak sustatu beharko ditu honako xede hauek lortzeko hartu beharreko erabakiak:

Azken urteetan egindako erreforma fiskalak alderantzeko (ondarea, sozietateak, PFEZ).

Zerga-iruzurraren aurka borrokatzeko.

- Politika fiskala zuzeneko zergetan oinarritzea, gastu fiskaletan barik (zerga-arinketak, kenketak eta abar).

GIZARTE-GASTUA

EAEko gizarte-gastuaren defizita BPGd-aren 7 puntukoa da (4.700 milioi euro urtean). Hori, neurri handi batean, Eusko Jaurlaritzak egiten duen gizarte-gastu txikiaren ondorioa da. Beraz, Eusko Jaurlaritzak gizarte-gastu handiagoa egin dezan eskatzen du ELAk; izan ere:

- horrela, 27-EBn gizarte-gastura batez beste bideratzen den BPGd portzentajera heltzea izango dugu.
- gaur egun ekonomiak agertzen duen moteltze-egoeran, gizarte-premiak are handiagoak direlako.

AURREKONTU-POLITIKA

Orain arteko aurrekontu-politikak gastuaren gehikuntza txikiak (batez ere, gizarte-gastuaren kasuan) eta superabit handiak izan ditu ezaugarri. Horregatik, aurrekontu-politika aldatzea eta gizarte-gastu handiagoa egitea exijitzen dugu.

Defizita izateak ere ez du esan nahi politika sozialagoa egiten ari denik. Berez, azken datuek erakusten digutenez, EAEn 2008an egon zen defizit txiki samarra errenta handiei eta kapitalari egindako zerga-beherapenaren eta BEZean egindako iruzur handiagoaren ondorioa izan zen. Era horretan, zorpetzea ere langileok ordaindu beharko dugu.

EAEn, gizarte-babesean ageri den defizita gizarte-esparru guztietara hedatzen da:

OSASUNA

- ELGEEn (OCDE), batez beste, osasuneko gastu publikora bideratzen den BPGd portzentajera iristea. (EAEn BPGd-aren %5 gastatzen da, Europako batez bestekoa %7,5 delarik; beraz, %50 handitu behar da gastu hori).
- Kalitateko osasun-zerbitzua eta arreta egokia bermatzea, behar diren bitarteko teknikoez eta giza baliabideez hornituz, itxaro-zerrendak eta laguntza-zerbitzuen saturazioa saihestuz, eta zerbitzua zuzenean emanez, osasun-laguntza pribatura desbideratu gabe.
- Osasun-laguntza publikoan gaur egun ematen ez diren osasun-zerbitzuak sartzeara, hala nola aho eta hortzen zainketa, begiena, edo emakumeek behar duten ginekologia-arreta osoa, adibidez.

HEZKUNTZA

- ELGEko estatuetan BPGd-tik hezkuntza publikora zuzentzen den batez besteko portzentajera heltzea (EAEn %3,6tik ELGEko %5era iristeko, %38,8 gehitu behar da gastua).
- Hezkuntza-zentro publikoetan, 3 urtetik beherako ume guztiei bermatzea tokia, horrela, familiarteko bizitza, lana eta bizitza pertsonala bateragarri izan daitezen.
- Hezkuntza-zentro publikoei jasotzen dituzten eskari guztiei erantzuteko eta irakaskuntzaren benetako doakotasuna ziurtatzeko besteko finantzaketa bermatzea.
- Hezkuntza-sistemako komunikazio-hizkuntza euskara dela bermatzea, ikasleak, ikasketak amaitzerako, elebidunak izan daitezen ziurtatzeko.

GIZARTE-ZERBITZUAK/MENPETASUNA

- Menpetasuneko egoeran bizi diren pertsona guztiei euren zainketa-premiak ase ahal dituen zerbitzu publiko egokiaz baliatzeko eskubidea bermatzea (egoitzak, etxeko laguntza, eguneko zentroak...)
- Zerbitzu publiko hori instituzioek eman beharra xedatzea.
- Menpekotasun-egoeretan osatu behar diren arreta-premien mapa onartzea.

GUTXIENEZKO DIRU-SARRERAK

OINARRIZKO ERRENTA

- Pertsona bakarreko bizikidetza-unitateei Lanbidearteko Gutxienezko Soldataren (LGS) %100 bermatzea.
- Bizikidetza-unitateko beste pertsona bakoitzeko, LGSaren %50 eranstea, gehienezko kide-kopururik ezarri gabe.
- Oinarrizko Errenta jasotzeko eskubidea 18 urtetik gorako pertsona guztiei ziurtatzea.

GIZARTE-LARRIALDIETARAKO LAGUNTZAK

- GLLak eskubide bihurtzea, aurrekontuetan jasotzen den zenbatekoa benetako premiak estaltzeraino handituz.

- Diru-sarrerak Bermatzeko eta Gizarteratzeko Lege berrian jasotako erreforma murriztaileak alderantzizatu. Esaterako, bizitzan zehar GLLen bidez kobratu daitezkeen gehienezko muga kendu egin behar da.

ETXEBIZITZA

- Etxebizitza duina izateko eskubidea pertsona guztiei bermatzea.
- Eskubide hori administrazioak bermatu beharra xedatzea.
- Etxebizitzako zuzeneko gastu publikoa BPGd-aren %2ra handitzea, oraingo %0,4tik.
- Etxebizitzari buruzko politika zuzeneko gastu publikoan oinarritzea, zerga-arinketen bitartez kudeatu beharrean.
- Etxebizitza arloan, lurralde- eta hirigintza-antolamendua, lurzoru-lorpena, urbanizazio-lanak, eraikuntza eta titulartasuna barne hartzen dituen osoko jarduketa publikoa bermatzea.
- Babes ofizialeko etxebizitzak alokairuan eskaini beharko dira, esleituko zaizkien pertsonen diru-sarrerak kontuan hartuta.
- Hutsik dauden 60.000 etxebizitzak merkatura ateratzea.
- Aurrerantzean eraikitzen diren babeseko etxebizitzek ekologikoak, seguruak eta erabiltzaileen beharrak asetzeko egokiak izan beharko dute.

FAMILIA ETA LANA BATERATZEA

- Familiako kideak zaintzeko eskatutako lanaldi-laburpenek eta eszedentziek dirauten aldietarako, Gizarte Segurantzako hitzarmen bereziak finantzatzea.
- Seme-alaba bakoitzeko, eta 18 urte bete artean, hilean 200 euroko zuzeneko laguntzak ematea.

EUSKARA

- Euskararen egoera erabat normaltzeko eta hizkuntza-eskubide guztiak errespetatzeko prozesuan aurrera egiteko konpromiso politikoa.
- Zerbitzu publikoak euskaraz eskaintzen direla bermatzea; horretarako, administrazioak ugaritu egin behar ditu giza baliabideak, bai eta euskararen aldeko konpromiso irmoa hartu eta normalkuntza-plan eraginkorrak taxutu ere.
- Kontsumitzaileen eta erabiltzaileen hizkuntza-eskubideei buruzko dekretua garatzea eta ezartzea.

AZPIEGITURAK

- AHT, Pasaiaiko portua eta abian jarritako beste zenbait makroproiektu geraraztea, eta azpiegiturak, trenbide-sarea, errepide-sarea eta abar osotasunean eta batera jorratzeko gizarte-eztabaida antolatzea.

- Merkantzien eta pertsonen garraiorako, trenbide konbentzionala bultzatzea, eskualdeen arteko komunikazioak ahalbidetuz eta Euskal Herriak egunez egunekoan benetan dituen beharrei erantzunez.
- Azpiegitura-planak bateragarriak eta zentzuzkoak izan daitezela ziurtatzeko moduko koordinazio instituzionala.
- Garraio publikoa eta garraiabideen arteko bateragarritasuna sustatzea.
- Mugikortasun jasangarria ahalbidetzea.

INGURUMENA

- Enpresei ingurumen-arautegia betearaztea, baliabide teknikoak eta ikuskaritzarakoak nabarmenki ugarituz.
- Ingurumen Baimen Bateratua eman aurreko prozesuetan, sindikatuei galdetu eta enpresa bakoitzaren izapideen egoerari, betekizunei eta betetze-mailari buruz dagoen informazio guztia eman dakien exijitzea.
- Lurralde-antolamendurako politika sektore-politiken menpe ez jartzea.
- Energia berriztagarrien erabilera indartzea eta energia nuklearra arbuiazea, Garoña itxi egin behar dela eskatuz.
- Errausketa baztertzea. Ahalik eta hondakinik gutxien sortzea, berrerabiltzea eta birziklatzea.
- Transgenikoei uko egitea, "koexistentzia" deritzoten hori saihestuz.

ENPLEGUA, PRESTAKUNTZA, LANeko SEGURITASUNA ETA OSASUNA, GIZARTE SEGURANTZA

ESKUMENAK

Transferitu gabeko eskumenei dagokienez, hauxe exijitzen dugu:

1. Eusko Jaurlaritzaren eta Espainiako Gobernuaren jarrerei buruzko informazioa eta parte hartzeko aukera.
2. Eskumen-esparrua errespetatzen ez duen transferentziarik ez onartzea; hau da:
 - Enpleguari buruzko politika aktiboek eta pasiboek batera joan behar dute.
 - Enpleguaren, prestakuntzaren, ikuskaritzaren edo lan-osasunaren arloan garatu beharreko politiken eredia EAEn erabaki behar da, eta Estatuan erabakitako eredia aplikatzeko baldintza ezartzen duen ezein transferentziarik ez da onartu behar.
 - Enplegu, prestakuntza, lan-osasun, gizarte-segurantza eta abarrekin loturiko transferentzien ondoriozko diru-sarrerekin batera, arlo horiei dagozkien fondoen kudeaketa ere ekarri behar da, gizarte-kotizazioak barne.

ELAren iritziz, oraingo esparru juridikoa oso murrizta da langileengan zuzeneko eragin handiena duten auzietan, aspaldidanik frogatu denez. Horregatik, Eusko

Jaurlaritzak araugintza-ahalmena aldarrikatu behar du, enplegu-politikei, lan-eskubideei eta gizarte-babesari dagokienez.

ENPLEGUARI BURUZKO POLITIKAK

Aldi baterako kontratazioan, kausalitatea ez da errespetatzen. Horrez gain, kontratu mugagabea izateko eskubideari dagokionez, ez dago babes judizialik. Era horretan, kontratazioan egiten den iruzurra masiboa da eta zigorrak gabe gelditzen da. Egiturazko legezkotasunik ezaren eraginez, ekonomiaren hazkunde txikiagoko aldietan, langabezia Europako batez bestekoaren oso gainetik hazten da. Hori dela eta, haxe eskatzen dugu:

- Ezegonkortasunaren aurka borrokatzea, kontratazioko iruzurra jazarritz. Horri begira, askoz baliabide gehiago eta ikuskatze zein zigor eraginkorragoak behar dira.
- Kontratazioa sustatzearen enpresei ematen zaizkien laguntzak ezeztatzea, enplegurik sortzen ez duen beste diru-laguntza bat baino ez dira eta. Diru hori gizarte-gastua handitzeko eta zerbitzu publikoetarako erabili behar da.

LAN-OSASUNA

- Istripuen eta ezegonkortasunaren egiturazko zioei (kontratazioko iruzurrari, behin-behineko lanari, azpikontratazioari...) aurre egitea. .
- Enpresei arauak betearaztea. Ikuskaritzarako, askoz aurrekontu handiagoa eta giza baliabide gehiago behar dira, Europan, batez beste, langileen kopuruaren arabera egiten diren ikuskapenen ratoria heltzeko.
- Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundea (Osalan) indartzea, aipatutako zeregin horiek modu egokian bete ditzan.
- Gaixotasun Profesionalei buruzko egiazko estatistika fidagarria prestatzea. Osasun eta Lan arloen arteko koordinazioa funtsezkoa da, gaixotasun profesionalak hautemate aldera.
- Datu-baseak eta informazioaren kalitatea hobetzea.
- Prebentzioa sektore publikoan ere sartzearako konpromiso zehatzak hartuz.
- Laneko kontingentzia arruntak LIen eta GPen mutualitateek kudeatu ez ditzaten sustatzea.
-

BORONDATEZKO GIZARTE-AURREIKUSPENA

Borondatezko gizarte-aurreikuspenezko erakundeen (BGAE) erreforma egin behar da, beren xedea pentsio publikoaren osagarri bat eskaintzea izan dadin. Horretarako Jaurlaritzak honakoak egin behar ditu:

- Xede horrekin zerikusirik ez duten puntuak arauditik kendu (adibidez, 10 urte igarota erreskatatzeko aukera).
- Arau fiskalen aldaketa galdegitea, BGAEek pentsio publikoek baino tratu hobea inongo kasutan izan ez dezaten.

- Enplegu-BGAEen helburua desitxuratu duten aurreko Jaurlaritzak onartutako arauak bertan behera uztea. Jaurlaritzak enplegu-BGAE "kualifikatuak" arautzeko erabateko ahalmena dauka, gizarte-aurreikuspeneko beren helburua zalantzan jar ez dadin eta abantaila fiskalak ematen dituen finantza-tresna huts bilaka ez daitezen.

HAUTESKUNDE SINDIKALAK

Hauteskunde sindikalei dagokienez, ELAk beharrezko jotzen du Eusko Jaurlaritzak konpromisoa hartzea hauteskunde hauek arautzen dituen akordioa aplikatzen jarrai dadin. Auzitegiek eman duten epaia ikusirik -akordioa sinatu zuten sindikatu guztiek errekurritua-, Jaurlaritzaren aldebakarreko erabakia, hots, epaia betearaztea, bertan behera utzi behar da.

ENPLEGUA ERREGULATZEKO ESPEDIENTEAK

Gehiengo sindikalaren aldeketasunik gabe aurkezten diren espedienteek dagokienez:

- Espediente hauek ez onartzea.
- Zorroztasunez jokatzeko (enpresei datuak eskatzea; datuok aztertu eta egiaztatzea, baita langileen ordezkariekin ere, eta epeak betetzea).
- Eragabeko neurriak ez onartzea, ez eta malgutasunik ere legaltasunari dagokionez (egutegiak, espedientearen eraginpeko pertsonen zerrenda,...).

Legezko mugak gainditzen dituzten enpresarien jardunbideak salatzea eta jazartzea. Ugazaberia, egokiera aprobetxatuz, soldata-izozketak eta murriztapenak, lanaldi-luzapenak, malgutasun handiagoa eta abar planteatzen ari da.

Sindikatuak denbora errealeko informazioa ematea, honako alderdi hauen gainean: aurkeztutako erregulazio-espedientearen eguneroko zerrenda, zer motatako espediente den eta zer eskatzen den ere zehazturik; espedientearen eraginpeko langileen kopurua; sektorean eta eskualdean oinarrituriko analisia; ebazpena emateko aurreikusitako epea; enpresek aurkeztutako eta gerora erretiratutako eskabideen zerrenda.

Etendurako erregulazio-egoeran dauden enpresei prestakuntzarako diru-laguntzak ematea ebazten duen dekretua indargabetzea. ELAk bere garaian salatu zuenez, diru-laguntza horiek enpresak finantzatzeko tresna besterik ez dira, langileen prestakuntza-maila ez baita arazoaren koska.

LANGILEEN ETA LANGABETUEN PRESTAKUNTZA

Honako baldintza hauek betetzen dituen prestakuntza-eredua garatzea:

- Hiruko kudeaketa, erabakiak hartzerakoan hiru alderdietako (sindikatuak, ugazabak eta administrazioa) bakoitzeko gehiengoaren iritzia aintzat hartuz.

- Bertoko prestakuntza-eredua garatzea, estatu-mailako diseinurik erabili behar ez izateko.
- EAEn garatzen den etengabeko prestakuntza berton taxutu behar da.
- Prestakuntzara zuzentzen diren kuoten ondoriozko diru-baliabideak kudeatzea.
- Prestakuntza lanbide-prestakuntzarako zentro homologatuek eman behar dute, sistema galbideratu eta bestelako interesen menpe jarri ez dadin.

ZERBITZU PUBLIKOAK SUSTATZEA

Zerbitzu publikoen arloan, behar-beharrezkoa da:

- Zerbitzu publikoak bultzatzea- ELAk erreklamatzeko duen gizarte-gastu handiagoa zerbitzu publikoak sustatzeko eta garatzeko baliatu behar da.
- Azpikontratazioari eta pribatizazioari buruz garatutako politikak berrikustea, bi jardunbide horiek txartu egiten baitituzte bai zerbitzuen kalitatea, bai zerbitzuok gauzatzen dituzten pertsonen lan-baldintzak. Jardunbideok eta gizarte-eskubideetan eta zerbitzu publikoetan nozitzen diren gabeziek, hain zuzen ere, diskriminazio bikoitza (lan eta gizarte arloetakoak) dakarkiete emakumeei.

DEMOKRAZIAN SAKONTZEA

ELAren iritziz, instituzioen jardunarekin loturik demokrazia-defizit garrantzitsuak ageri dira. Eusko Jaurlaritzak horrelako egoerak zuzentzeko urrats zehatzak eman behar ditu. Ildo horretan, hauxe behar dugu:

SINDIKATUEK PARTE HARTZEKO ZINEZKO BIDEAK

ELAk EAEko Ekonomia eta Gizarte Auzietarako Batzordean (EGAB) parte hartzen ez jarraitzea erabaki zuen, bertan zerga arloaren edo AHT proiektuaren moduko gai garrantzitsuak aipatu ere ezin zirelako egin, bai eta Jaurlaritzak lantalde horren proposamenei egin dien kasu hutsalagatik ere.

ELAren ustez, EAEn aplikatzen diren politika publikoen inguruan sindikatuek parte hartzeko egiazko bideak eratu behar dira.

Parte-hartze instituzionala ezin da ibilbide luzeagorik gabeko izapide huts bat izan. Horrek, halaber, ezin ditu inoiz ordeztu ez instituzioen eta sindikatuaren arteko alde biko harremana, ez aplikatu beharreko politiken gaineko eztabaida.

ASKATASUN SINDIKALA ERRESPETATZEA

Eusko Jaurlaritzak eskubide sindikalak murrizteko hainbat erabaki hartu ditu. Horra hor, adibide gisa, Lehiaren Defentsarako Euskal Auzitegiaren erasoei eman dien bultzada politikoa; maiatzaren 21eko grebaren aurrean, greba-

eskubidearen murriztapena zekarten gutxienezko zerbitzuen ezarpena, edo Ertzaintzak egun horretan eta beste zenbait lan-gatazketan erakutsitako jokaera neurrigabea.

Horregatik guztiagatik, ELAren ustez, Eusko Jaurlaritzak jokabidez aldatu behar du, Jaurlaritzak berak 1994an gutxienezko zerbitzuei buruz sinatutako akordioa betez eta Ertzaintzaren portaera zuzenduz, besteak beste.

GEHIENGOAK ERRESPETATZEA

ELAren iritziz, Eusko Jaurlaritzak erakunde bakoitzaren ordezkagarritasun-maila errespetatuz jokatu behar du, sindikatuekin harremanetan dagoen esparru guztietan (instituzionalean, negoziazio kolektiboan,...).

Horretarako, ezinbestekoa da onartzea akordioek, demokratikoak izan daitezen, gehiengo sindikalaren aldeotasuna behar dutela. Eusko Jaurlaritzak "gizarte-elkarriketa" deritzoten horretan erakusten duen jarrerak ez du arau hori betetzen.

HERRI-KONTSULTAK SUSTATZEA ETA HERRITARREN ERABAKIAK ERRESPETATZEA

ELAk salatu nahi du elite politikoa osatzen dutenen artean oso zabaldua dagoela herritarrei kontsulta egiteko une bakarra hauteskunde politikoak direlako ideia.

Argi dago demokrazia 4 urterik behin botoa ematea baino askoz gehiago dela eta parte-hartzean oinarrituriko demokraziantz jo behar dugula, zerga-erreforma, trenbide-sarea itxuratzeke eredu eta horien moduko beste gai garrantzitsuen inguruan herritarrei kontsulta eginez eta beraien erabakiak aintzat hartuz.

GATAZKA POLITIKOARI ELKARRIZKETAN OINARRITURIKO IRTENBIDE DEMOKRATIKOA AURKITZEA

Gatazka politikoaren ebazpena elkarrizketaren bidez aurkitu behar da. Eusko Jaurlaritzak elkarrizketan oinarrituriko irtenbidea sustatu behar du, egungo gatazka politikoa gaingidatzeko.

Halaber, gatazka politikoari dagokionez ere eskatu behar zaio iritzia herritargoari, bai eta berorrek euskal esparru politiko juridikoaren gainean hartzen duen erabakia errespetatu ere.